

ASILO ESKATZAILEAK

CEAR Euskadi arduratu da errefuxiatuen, aberrigabeen eta migranteen itxialdiaz

Arriskua ez ezik, ondorio nabarmenak ere ekarri ditu koronabirus berria munduan zehar hedatu izanak. Denentzako osasun arrisku eta ondorio latzak, baina baita kalte sozialak eta ekonomikoak ere, batez ere ahultasun egoeran daudenak kolpatzen dituztenak. Horien artean daude hain zuzen asilo eskatzaileak, errefuxiatuak, migratzaileak eta aberrigabeak, eta lehendik jasaten zuten prekaritatea areagotu egin da. Bada Euskal Herrian ere, etxean geratzeko aukerarik ez duenik, konfinatuta egoteko etxerik ez duenik.

CEAR Euskadik Espainiako Gobernuari eskatu dio baliabide ekonomikorik ez duten eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsona guztiei lehen harrerako sisteman leku bat emateko, salbuespen gisa, asiloa eskatzeko asmoa duen inor ere kalean gera ez dadin. Pertsona horien egoera erregulartzatzea nahi dute lehenbailehen, administrazio publikoa geldirik dagoen honetan, pertsona horiek linbo legal batean geratu baitira. Halaber, Atzeritarak Barneratzeko Zentroetan pilatuta dauden pertsonak ere badira erakunde horren kezka. Diotenez, atxikitze horrek lehen ere ez zuen inongo zentzurik, eta orain are gutxiago, koronabirusaren ondorioz mugak itxi dituztelako eta pertsonak deportatzea ezinezkoa delako. Hori dela eta, erakunde ugari zentro horietan dauden pertsonak askatzeko eskatu diote Gobernuari.

CEAR Euskadik 30 urte daromatza lanean gizaki guztien babes eta asilo eskubidea aitortzeko borrokan. Erakunde horretako langileek eta hainbat

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Koronabirus berriak denengan izan du eragina; hala ere, jende asko lehen ere egoera kaskarrean bizi zen. Nola eragin die horiei konfinamenduak? CEAR Euskadi asilo eskatzaileei, errefuxiatuei eta migrantei laguntzen dien erakundeko zuzendari Patricia Barcenarekin hitz egin dugu haien orainaren eta etorkizunaren berri jakiteko.

boluntariok errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak defendatzeaz gainera, horien garapena ere sustatzen dute.

Errefuxiatuak leku seguru batera heldu eta asiloa eskatzen dutenean, bizitza berri bat hasten dute, hutsetik. Haien erroka horrekin batera hasten da CEAR Euskadiren lana. «Iristen direnean, etxe bat iza-

ten dute zenbait hilabetez, deskantsatzeko eta indarrak hartzeko; CEAR Euskadiren talde juridikoak asilo-eskaera bideratzen laguntzen die, eta presakuntza, lana eta etxebizitza bilatzen laguntzen die. Halaber, hasierako etapa horretan behar duten arreta psikologikoa ematen die», dio Naiara Gutierrez CEAR Euskadiko komunikazio arduradunak.

Errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideen aldeko lana egiten du CEAR Euskadik.
GAUR8

Lagun horien eskubideen aldeko erakunde horretan eskuarki ez dute lanik falta, eta azkenaldion are gutxiago. Alarma egoeran, zentroetako eta harrera pisuetako arreta presentziala ahalik eta txikiena da, langile sozialak eta hezitzaileek beharrezko bisitak baino ez dituzte egiten, eta gainerako guztia normalean telefonoz egiten dute. Bide hori edo telematikoa lehenesten dute.

KONFINAMENDUA

Patricia Barcena CEAR Euskadiko zuzendaria da. Tarte bat eskaini dio GAUR8ri alarma egoerak eta, beraz, konfinamenduak arreta ematen dien kolektiboarengan eta eurengan izan duen eraginaren berri jakiteko.

Asteotan oso jende gutxi dago bulegoan. Handia bada ere, gehienek etxetik lan egiten dute. Teknologia menpean dituz-



te dagoeneko. «Lehenbiziko bi asteak eromena izan ziren. De-nontzat izan da horrela, ezer prestatuta izan gabe harrapatu gaitu eta. Segurtasun neurriak, geneukan materiala berrikus-tea, leku bakoitzeko arrisku maila aztertzea, norbera babes-teko ekipamenduak lortzea... Pentsa, beti eduki ohi ditugu baina normalean ez ditugu era-biltzen, eta bat-batean premia biziko gai bihurtu dira eta go-goratzten hasi behar izan dugu non dauden, zenbat ditugun, zer lehenetsi beharra dagoen bai bulegoan bai harrera zen-troetan...».

Lehenengo astea protokoloak egiten eta behar zituzten gau-zak eskatzen eman zuten. Gero, nola lan egin behar zuten anto-latu zuten. «Jendea etxera joan zedila esan zuten, bai, baina lan egiteko bitartekorik ez duenak? Ordenagailua, wifia, pertsonen datuen babesa... Lehen bi aste-ak eromena izan ziren, baina batez ere antolakuntzari, proto-koloei, alde guztiekiko negozia-zioei zegokienez. Guk arreta eman nahi dugu, baina inor arriskuan jarri gabe».

Edonola ere, oso ondo egin dutela uste du, dena gutxi go-rabehera berrantolatuta eta jende guztia arreta jasota da-goela. Kutsatze maila oso txi-kia izan dute, jende asko direla kontuan izanda. Izan ere, kasu bakar bat izan da, harrera etxe batean, proba egin gabe nabar-mena zena. Gainontzean, sin-toma arinen bat eta bakartze-ren bat, prebentzio gisa.

Jende asko direla dio eta ha-laxe da: lehen harreraren daude-nak, aterpeetan, lagunen etxe-bizitzetan, hurrengo fasean daudenak, harrera pisuetako-ak, autonomia fasekoak baina oraindik laguntza motaren bat jasotzen jarraitzen dutenak... Horiek guztiek 1.000 lagun in-

«Jendea etxera joan zedila esan zuten, baina lan egiteko bitartekorik ez duenak? Ordenagailua, wifia, pertsonen datuen babesa... lehenbiziko bi asteak eromena izan ziren», azaldu du Barcenak

1.000 lagun ingururi ematen diote arreta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta zazpi edo zortzi bakartze baino ez dira izan, prebentzio gisa, eta ospitaleratutako bat bera ere ez

guruko multzoa osatzen dute, Araban, Bizkaian eta Gipuzko-an. Horietatik guztietatik zazpi edo zortzi bakartze kasu baino ez dira izan, eta ospitaleratuta-korik gabe, ez arreta jasotzen dutenen artean, ez CEAR Eus-kadiko langileen artean.

Konfinamenduaren lehen egunetik jarri ziren abian, era-

kundeko integratzaileek aterpe eta harrera pisu guztietara joan ziren, zeuzkaten norbera ba-besteko ekipamenduak, maska-rak eta gelak eskura jartzeko eta garbiketa aholkuak emate-ko. «Erabiltzaileek, egia esateko, harrituta utzi gaituzte, portae-ra bikaina izan dute denek. Izan ere, bizikidetzaren berez arazotsua bada, guretzat jada hala bada, ia ezagutzen ez duen jendeare-kin bizi denarentzat pentsa zer izan daitekeen, duela lau egun ezagutu duenarekin bizi dena-rentzat, zenbait kasutan hiz-kuntza bera hitz egin gabe... Baina oro har, garrantzirik ga-beko gorabeheraren bat salbu, oso-oso ondo joan da guztia», dio Barcenak, oso pozik.

Hilabete bat ondo pasatuta, erlaxatuxeago daude, bai behintzat hasierako egunetako inor kutsatzeko beldurrak era-gindako tentsioaren aldean.

NOLA ERAGIN DIEN

Asilo eskatzaileei, aberrigabeei eta migranteei larrialdi honek dauden etaparen etaparen ara-bera eragin die. Barcenak dioe-nez, ez daude berdin aterpe ba-tean, behin-behineko leku batean dagoena eta pisu bate-an dagoena. Azkenak autono-mia gehiago dauka, eta ibilbide bat eginda. «Oro har, hasieran beldur handiko momentuak izan ziren, gizarte osoan beza-la, eta arauak ondo betetzeko ardura zegoen. Orain fase zai-lago batean sartu gara, dagoe-neko nekea nabaritzen hasi baita, eta horrek bizikidetzari eragiten dio, batez ere jende asko bizi den guneetan. Harta-ra, Oñatiko eta Tolosako lehen harrerako zentroetan, esate ba-terako, CEAR Euskadiko talde osoek bertara itzultzeko asmoa daukate. Beti egon da gutxie-neko zerbitzuetarako talde bat, baita bizitza atseginago egite-



Patricia Barcena, CEAR-Euskadiko zuzendaria. Eduardo Quintana



ko ere, horregatik egon dira zenbait integratzaile dinamizatzen, baina orain denak itzuliko dira, txandaka, kutsatzerik izan ez dadin».

Hezkuntzari dagokionez, denbora honetan guztian *online* prestakuntza indartu dute zentroetan eta pisuetan, informatika ekipoak sendotu behar izan dituzte, dena eguneratu. «Ikastetxeak oso ondo portatu dira, gazteei jarraipena eginez. Pisuetan zailtasun gehiago izan dira, denek ez baitute ordenagailurik edo wifirik, baina oro har prestakuntzak aurrera jarraitu du. Orain lan gehiago egiten ari dira helduen prestakuntza indartzen, «egoera hau luzatzen bada ere».

ALDE POSITIBOA

Zentroetan barne elkartasun olatua sumatu dute; esate baterako, latinoamerikarrek Saharaz hegoaldekoei edo Ekialdeko lagunei laguntza eman diete gaztelania ikasten jarrai dezaten. Halaber, gaitasun asko azaleratu dira: «Puntua egiten dakien batek, esate baterako,

poltsak egiten ditu eta beste lagun batzuei nola egin irakasten die. Lehen gela nagusiko pantailan futbola jartzen zuten gehienbat, eta orain elkarrekin gimnasia egiteko baliatzen dute. Alternatibak bilatzen dituzte egunez egunekoa arinago gertatzeko», dio elkartasun erakundeko zuzendariak.

Harrera pisuetan hori zailagoa da, baina integratzaileek jarduerak sustatzen ahalegintzen dira. Bestetik, Gurutze Gorrian boluntario dauden gazteak nagusiei erosketak eramaten dizkiete. «Elkartasun sare oso polit eta interesgarri batzuk atera dira agerira», nabarmendu du Barcenak.

«Lehen gela nagusiko pantailan futbola jartzen zuten gehienbat, eta orain elkarrekin gimnasia egiteko baliatzen dute. Alternatibak bilatzen dituzte egunez egunekoa arinago gertatzeko»

«Lanerako aukeren fasean zeuden batzuek, asiloa ukatu ondoren, egoera dokumentala oztopo dute; beraz, denbora luzatzen jarraitu behar dugu eta horiei sostengu soziala ematen»

Oñatiko Larraña Etxean arreta jasotzen duten zenbait asilo eskatzaile herriko kafetegi batean, konfinamendua baino lehen.
Curruscu

Alde negatiboak ere baditu, jakina, berez negatiboa den egoerak. «Denbora igaro eta igarri egiten da. Bizikidetza gogorra gertatzen da, konfinamenduko bizikidetza, alegia, eta hori oso ondo zaindu beharra dago. Horretarako, gure taldeak adi egon behar du, eta horregatik pentsatzen ari gara denak itzultzea. Beharrezko zerbitzua garenez, ez dugu horretarako arazorik izango».

ASILOA UKATUTAKOAN

Asiloa lortzeko zailtasuna hizpide, lagun horien aukerak Estatu espainolean daramaten denboraren arabera direla dio Barcenak. Saharaz hegoaldeko lagun askori eta oro har errefuxiatuei asiloa ukatzen diete. Venezuelarrei, berriz, babes baimen bat ematen diete arrazoi humanitarioengatik. «Horiei gutxienez alternatiba bat ematen diete, bizileku eta lanerako –azaldu du Barcenak–. Gainerakoei dagokienez, gu lanean ari gara eta egoera hau baliatu nahi dugu Gobernuari begira, arrazoi hu-

manitarioengatik beste aukera bat izan behar dutela nabarmentzeko, nazioarteko presioarekin lotuta ez dagoen aukera bat; hau da, osasun egoerarekin, itzultzeko ezintasunarekin lotutako aukera. Saharaz hegoaldeko lagunak, esate baterako, ez dira itzuliko, ezingo dituzte kanporatu. Lehenik, mugak itxi dituztelako; bigarrenik, seguruena epe ertain-luzera haien herrialdeetako asko gu baino baldintza kaskarragoetan egongo direlako prozesu birikoari dagokionez eta, beraz, ez dute osasun-segurtasun baldintza egokirik izango; eta, hirugarrenik, badutelako denbora bat Estatuan finkatuta eta horrek beste alternatiba batzuk eman- go dizkielako, gutxienez arlo juridikoan ibilbide osoa agortu arte. Errealitate horretatik abiatuta, guk erregularizazio bide alternatibo bat bilatzeko proposatu diogu Administrazioari, arrazoi humanitarioengatik, eta horretan ari gara lanean».

Estatu espainolean zenbat denbora eman duten aintzat hartu behar dute, indarrean dagoen araudiaren arabera zer lan aukera dituzten, lan eskaintzarik izan lezaketen aztertu eta atzeritar legean dauden finkatze edo erregularizazio bideak bilatu. Bide horiek oso korapilatsuak direla dio CEAR Euskadiko zuzendariak: «Ez da erraza, eta hori da babesba ukatzen dieten lagun errefuxiatu gehienek duten errealitatea. Atzeritarren legedira jotzen badugu, ez da erraza egoera irregularrean dagoen atzeritar baten egoera legeztatzea. Balia bide sozialei dagokienez, gauza bera, nazioarteko babesarekin lotutako harrera sistematik irten eta beste batera igaroko da, migrazioaren era, hain zuzen. Hori oso sistema badaezpada-koa da, baina nik uste dut krisi

«BORROKA EGINGO DUT ETA NOIZBAIT ZORIONTSU IZANGO NAIZ»

honek nabarmen utziko duela migrante kalteberentzako harrera sistema honen ahulezia».

Egoera horretan daudenei sostengua emateko badituzte zenbait harrera-plaza, Carmen Gandarias, Victor Tapia edo beste fundazio pribaturen baten laguntzarekin. «Lagun horiekin ibilbide bat egina genuen eta lanerako aukeren fasean zeuden, baina oztopo dute egoera dokumentala; beraz, denbora luzatzen jarraitu behar dugu eta horiei sostengu soziala ematen, bazterketan eror ez daitezen eta gizarte-sustaitzearen bidez beren egoera erregularizatu ahal duten momentura irits daitezen, norma-lean hiru urteko epean».


Bizi garen egoerak, asilo eskatzaileei, errefuxiatuei eta migratzaileei dagokienez, jendar-tean izan dezakeen eraginaz ere mintzo da Barcena. «Errefus efektua ere sortu liteke, bai, baina gerta litekeela badakigunez, kontua ez da hemengoa edo hangoa izatea nabarmen-tzea, baizik eta denok egoera berean gaudela, arrisku bera- ren pean eta elkarri lagundu behar diogula naziotasunik ez duten sareak sortuz». Dioenez, lagun atzerritar asko osasun zerbitzuaren esanetara jarri dira, egoerari aurre egiten laguntzeko. «Kontuan izan beharra dago gure nagusiak eta umeak zaintzen dituzten lagun gehienak atzerritarrak direla. Haietako askok zaintzen jarraitzen dute, segurtasun baldintzarik gabe, eta beste asko lanik gabe geratu dira, gu etxean gaudelako». Otxarkoagan, esate baterako, adineko askori mutil magrehtarrek eramaten dizkiete erosketak, «prentsan txitean-pitean maiseatzen dituzten horiek. Normaltasunera itzulita-koan, ez dakigula ahaztu inoiz ez garela izan honen berdinak».

Gael Aduk ez ditu hogeitaz bete eta duela hamar irten zen Boli Kosta bere sorterritik, aita hil ziotenean. Burkina Fasora joan zen, herrialde hartako emakume baten laguntzarekin. Duela hemezortzi hilabete iritsi zen Euskal Herrira, asiloa eskatu zuen eta, gehienez bezala, ukatu egin zioten orain aspaldi ez dela. Hori gutxi balitz bezala, osasun larrialdia hasi zen. CEAR Euskadiren harrera pisu batean dago, Bilbon. Gauza asko egin ditu Gaelek azken urte eta erdian. Helduen Hezkuntzako ikastegi batean ikasten hasi zen, unibertsitate ikasketak egiteko asmoz. Afrikan ez zuen horretarako «zortetik» izan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen maila gauditu du, eta ikasgaiak ondo ulertzen ez dituzten ikaskideei laguntza ematen die klasetik kanpo. Horrez gainera, sukaldaritza ikastaro bat ere egiten hasi zen, konfinamenduak eten ziona. Bestetik, futbolaria da eta iaz Basauriko Baskonian jokatu zuen.

Gael ez da etxetik ateratzen, baina horrek ez du esan nahi geldi dagoenik. «Nire gauzak adierazteko zerbait behar nuen eta Instagramen orrialde bat zabaldu nuen». Afrikako sukaldaritzako errezetak eskaintzen ditu bertan, eta ez du jarraitailerik falta. Azalpenak eta plater gehiago eskatzen dizkiote. Horrek adore ematen dio.

Asiloa ukatuta, lana du lehen premia. Lana lortuz gero, pisu bat parteka lezake lagun batekin. Izan ere, garrantzitsua da pisua, «buruari atsedeen emateko, ondo pentsatu ahal izateko, beldurrik gabe lo egiteko...». Oraingoz, kanporatzeko aginduaren aurkako helegitea jarri behar du, baina harrera pisua utzi beharko du. Udalera jotzeko esan zioten eta hala egin zuen, gizarte-laguntzaile batekin hitz egiteko; hitzordua zuen, baina bertan behera geratu zen konfinamendua dela eta. Kezkatuta dago, adoretu agertu arren: «Ni beti bizi izan naiz kalean, niretzat ez da kontu berria, eta dakidan guztiarekin, ikasi dudana guztiarekin, ez naiz lur jota geratuko. Hala tokatzen bazait, kalean geratuko naiz, baina aurrera segituko dut. Ikasten jarraitzen ahaleginduko naiz, eta futboleant...».

Behin baino gehiagotan galdetu izan diote egoera latzenetan ere nolatan



Goian, Gael, Baskonia futbol taldearekin jokatzen, joan den denboraldian. Ezkerrean, Instagram bidez eskaintzen dituen sukaldaritza saioetako batean. Gael Adu

egoten den adoretu eta burua gora. «Txikitatik familiarik izan ez dudanez, nire bizimodua bilatzea izan da, zerbait hobea bilatzea». Eta bilatze horretan indarra eta gogoia behar dituela dio. «Bizimodu zaila izan dut, eta hona iritsi nintzenean gauza berriak, gauza hobeak hasi beharra neukan». Aukera hori zeukala uste zuen, behintzat, eta denborak esango dio lan egiteko gogoz dagoenarentzako aukerak eskaintzen dituen mundura iritsi den. Badaki bere etorkizuna guztiz baldintzatzen duten lege batzuk daudela. «Nik gauzak egiteko gogoz nagoela, ez naizela alferra ikusten badute, beharbada aurrera ateratzen lagundu diezadakete. Asiloa ukatu zidatenean, oso gaizki pasa nuen. Nire

ametsak beheja jo zuen. Lan egin nahi nuen ikasketak ordaintzeko...». Estatutik ateratzeko agindua eman ziotenean, «bizitza luzea dela pentsatu nuen, eta nik oinak ditudala, oinez ibil naitekeela, eta beste gauza asko. Hemen gelditzen ez banaiz, iparralderantz segituko dut, gora-gora, bizitzak naraman lekuraino, borroka egingo dut eta egun batean zoriontsu izango naiz». Solasa amaitu baino lehen, eskertze batzuk egin nahi lituzkeela dio Gaelek. CEAR Euskadiko lagunekin oso momentu onak igaro dituela dio, eta horiez gainera, gogoan ditu lagundu dioten zenbait lagun ere, hala nola David sendagilea eta haren lagun Juan, SOS Tarifa taldea eta Arrigorriaga Harrera.